

5. GAIA: PSIKOMOTRIZITATEA ETA HAUR HEZKUNTZA



50. argazkia: Jon eta Unai. Zer egongo da beste aldean? Goazen begiratzera.

5. GAIA: PSIKOMOTRIZITATEA ETA HAUR HEZKUNTZA

5.1. PSIKOMOTRIZITATEAREN KONTZEPTUA

Psikomotrizitatea, azken 30 urteotan, asko zabaldu da, eta



Wallon-en ikerketan oinarrituta hasieran terapia gisa sortu zen metodoa eskolara iritsi da, mugimenduaren adierazpen toniko-emozionala goraiapatuz. Ume bakoitzak munduan egoteko modu bat du, eta horren arabera sortzen dira harreman guztiak. Ikasle edo ume guztiak ez dira berdinak, eta horiek aurretik izan dituzten esperientziak ere ez dira berdinak. Ume bakoitzak dituen aukerak izango dira beren ikaskuntzen abiapuntua (*Aucouturier eta Mendel, 2004*). Ume guztiek ez dituzte posibilitate berak ikaskuntzak barnerratzeko eta horiek finkatzeko. Horretan oinarri hartuta, eta ume bakoitzak denbora eta erritmo jakin bat behar duela kontuan izanda, lan egiterakoan aniztasun hori hartu behar da kontuan. Bestalde, jolasak izugarritzko garrantzia du umearen garapen osoan, jolastean kontzentrazio maila oso handia behar baita, eta, hala, ume bat jolasean ari denean lanean ari denean bezainbesteko sakontasunaz aritzen da. Horretan oinarritzen da psikomotrizitatea, eta, horrenbestez, metodo horrek hainbat ikaskuntza-jarduera txertatu nahi ditu, umearen oinarritzko beharrak asetzeko.

Psikomotrizitatea umearen eremu guztietan landu behar da: afektibitatean, motrizitatean eta kognizioan; dena dela, haren heldutasuna errespetatu eta nortasuna era harmonikoan sartzea lortu behar da (Domiguez Sevillano, 2002). Egile horren ustez, umearen garapen harmonikoa gertatuko da, baldin eta gerorako pertsona izateko aukera ematen badiogu; horren barruan, pentsatzeko, adierazteko, komunikatzeko eta sormena lantzeko aukera eman behar diogu. Psikomotrizitatearen estrategia pedagogikoak umearen ezagupenak eraikitzean du abiapuntua, eta umeen parte-hartzea bultzatzen du. Espazioa txokoetan banatzen da, umeak aukeratzen du zein jarduera mota egingo duen eta zein izango den jardueraren intentsitatea, betiere besteak errespetatuz eta gauzak partekatuz. Irakasleak ondo pentsatu behar du zer-nolako baliabideak eskaini nahi dizkion umeari haren jakin-mina bultzatzeko eta jarduerarekiko interesa motibatuz. Horrelako planteamendua aurrera eramateko, beste era batera antolatu behar da espazioa, material berriak gehitu behar dira, eta gure kulturako tresnak erabili (Laguia, 2001). Ikaskuntza zentzumenen bidez jasoko da, objektuak manipulatu.



51. argazkia: Psikomotrizitate aretoan gaude


Psikomotrizitatea heziketa metodologia edo teknika zehatz bat baino zerbait gehiago da, heziketaren filosofia da, bizitza ulertzeko eta jokatzeko era berezia. Munduan egoteko eta izateko modu bat da (*Aucouturier, 2004:129*). Mugimenduaren bidez pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetu, erraztu eta suspertzen duen gaitasun gisa definitu ohi da psikomotrizitatea (*Herrera, 1993*). Filosofia horren helburuen artean honako hauek nabarmen daitezke:

- Norbera ezagutzea eta onartzea.
- Portaera (jokabidea) egokitzea.
- Norberaren autonomia garatuz bizitza sozialean ardurak eskuratzeko gaitasunak hobetzea.

7-8 urte bitarteko aldia orokortasunarena da; umeak mundua deskubritzen du, eta espazioaren, objektuen eta pertsonen arteko harremanak sortzen ditu, eta, hor, motrizitatea, afektibitatea eta ezagutza elkartzen dira. Kanpoko munduarekin duen harreman horri psikomotrizistek espresibitate motor esaten diote. Barruan dutena tonizitatearen bidez kanporatzen dute, eta mugimenduekin, ahotsarekin eta begiradarekin munduan egoteko era bat adierazten dute. Psikomotrizitatean pentsatzeko plazeretik egiteko plazerera igarotzen dira (*Dominguez Sevillano, 2002*). Psikomotrizitatea oso erakargarria eta ikusgarria da, baina, abiapuntu garbirik ez badugu, hau da, prozesua bizirik ez badago, planteamendu hori aspergarri eta errepikatzaile bihurtzen da. Umeari espazioa eta mugimendua ikertzeko aukera eman behar zaio, bere ikaskuntzaren kudeatzaile bihurtzeko.



dadin. Maiz aldatu behar izaten dira estrategia pedagogikoak, ume trebeenak ez daitezen jolasean agintari bihurtu.



52. Irudia: Psikomotrizitatearen kontzeptua

Estrategia pedagogikoak aztertzen baditugu: autore batzuen ustez, estrategia maiz aldatu behar dira ume trebeenak jolasen agintariak ez izateko (*Laguia, 2000; Tomàs, 2005*), baina beste autore batzuen ustez, (*Aucouturier, 2004*), afektuzko esparruari begiratzen badiogu, espazioak beti berdin agertuko behar luke edo antzera antolatua, espazio zehatz horretan ziurtasuna izateko. Psikomotrizitatearen helburuak (Dominguez Sevillano, 2002-en ustez) honako hauek dira:

- Komunikatzeko plazera: komunikatzea ematea eta jasotzea da, sentimenduak eta desioak ulertzea, taldekoei adieraztea eta errespetatzea. Eta hori adierazten da bizipen batzuen bidez, jauzi eginez, biratuz, bata besteari jarraituz, gauzak eraikiz eta botaz... eta adierazpena gehienetan ez da hitzezkoa izaten.
- Sortzeko plazera: umeak kanpoko mundua aldatu nahi du, bizipen positiboa duen bitartean. Gauzak manipulatzeko sormena lantzen du, eta horrek ongizate sensoriala, tonikoa eta afektiboa eragiten dio.
- Ekintza operatiboaren plazera: urteetan, bere behar eta lehentasunak asetzeko asmoz, emozioen bitartez errealitatea eraldatu ohi du. Hor, deszentrazioa gertatzen da; objektuak bere balioa galtzen du, eta beste zentzu bat hartzen du.

Psikomotrizitateak ez du izan behar ongi bat pasatzeko momentu hutsa; umeekin lan egiteko beste modu bat da, baina irakasleak orientazio pedagogiko garbi bat izan behar du, bestela, planteamendua ez da egokia izango. Lan praktikoa aurrera eramaten denean materiala



aurkezterakoan, zailtasun maila bat baino gehiago egon behar du, trebetasun gutxiago duten ikasleek antsietatea eta beldurra senti ez dezaten. Umeak, batzuetan, babesa aurkitzen du jolasak errepikatzen direnean, baina, beste batzuetan, nahiago du gauzak deskubritzea eta sortzea, edo gauzak eta ideiak trukitzea, eta, beste batzuetan, nahiago du hitz egitea emozioak kanporatzeko.

Haur Hezkuntzako irakasleak umeen adierazpenei egingo die kasu, komunikazioa, sormena eta deszentrazioa hobetzeko. Umearen jarduera motorra bat-batekoa bada, joko sinbolikoa umea ezagutzeko abiapuntua bihur daiteke. Kasu horretan, estrategia pedagogikoak azpiegitura sinbolikoa ezagutu nahi du. Objektuen manipulazioaren bitartez umearen nortasuna ezagutu daiteke. Umeak, sormenaren bidez, errealitatea imitatzen du, eta emozioak kontrolatzen ikasten du. Jolas sinbolikoaren bidez boterea ere adieraz daiteke.




52. argazkia: Sherezade naiz... eta zu? Nor zara?

Garai batean gorputzaren eta arimaren arteko bereizketa egiten bazen ere (soma eta psikea), psikomotrizitateak gizakia osotasunean hartzen du, izaki bakar bat balitz bezala, eta ez nabarmendutako bi azpiatalen batura gisa. Haurren afektibitatearen, adimenaren eta mugimenduaren esparruak bateratuta hartzen dituzte. Honako bi arazo hauei erantzuteko asmoz sortu zen: mugimendu eta eskolako errendimenduan zegoen hutsune eta gabezia, batetik, eta



komunikazioaren arlokoa, bestetik.


Jarduera psikikoa eta portaera motorraren artean lotura estua dago. Ondorioz, psikomotritatea ez da mugimendua bera soilik aztertzeraz mugatzen; osotasunezko ikuspegi horretatik, bere borondatez, jakinaren gainean gauzatutako erantzun motor horretan, ezaugarri psikikoak ere hartzen ditu kontuan. Gorputzean oinarrituta hasten da lana, baina kanpoko munduaren errepresentazioa, analisia, sintesia, eta manipulazioa egiten da ere, mundua ulertzeko (Tomàs, 2005)



53. irudia: psikomotritatearen sorrera.

Psikomotritatea, azken batean, gizakiak gorputzaren bidez mintzaira (hizkuntza) adierazteko duen aukera bat da, komunikatzeko baliabide bat. Hala erabakita, keinuen bidez mezuak isla ditzakegu. Eskola honetako partaideentzat gorputzaren betebeharrak neuromotrizak eta psikikoak erabat lotuta daude, gauza bera dira azken finean. Ikuspegi honetan motritateak eta afektibitateak baldintzatuko du haurren hazkuntza eta garapena ulertzeko modua.

Psikomotritatearen ikuspegitik bizi izandako esperientziak (bai positiboak bai negatiboak) norberaren izaera eta nortasuna baldintzatzen dute. Hori dela eta, ingurunearekiko harremana, parte-hartzea, jarduera eta ekintza ezinbesteko osagaiak izango dira heziketa-antolaketa honetan. Bereziki azpimarratuko dute eskolako ikasketak-prozesuan jasotako arrakasta eta porrotak.



54. irudia: Irakasleak psikomotrizitatearen bidez bultzatu behar duena

Bereganatzea eta asimilatzea (ikasi) bizi izandakoaren eta esperimentatutako jarduera moten arabera denez, eremu horretan kokatu behar da hezitzailearen eginkizuna: haurren izaerak helburu pedagogikoen aurrean ezarri behar dira, saiakera, esperimentazioa, proba, tanteo eta bizipenaren bidez aurrera egiteko aukerak izan ditzan. Mugimendu aske eta ez zuzenduen bitartez, bizipenen eta baneratzaren bitartez, haurren ahalmenak garatzen saiatuko dira (eta baita adimena ere).

Eskolako ikasketa-prozesuan, funtsezkoak dira zenbait trebetasun (irakurketa, idazketa, kalkulua), aurreragoko beste zenbait gaitasun konplexuagoren oinarri baitira. Oinarrizko ahalmen horiek eskuratzeko prozesuan, psikomotrizitateak zeresan izugarria du. Psikomotrizisten lanei esker, ikusi da grafomotrizitatea eta antzeko gaitasunak arrakastaz garatu daitezkeela.

Izan ere, kontuan hartu behar da psikomotrizitateak honako eremu eta eduki hauek lantzen dituela:

- Gorputz- eskema, nor bere burua hobeto ezagutzuz eta onartuz. Haurrak bere gorputza irudikatzen du, ez izaera estatikoz, dinamikoz baizik.
- Lateraltasuna eta albotasuna (bereizketa eta menderatzailearen ezagutza).
- Gorputza eta jarreraren kontrola.



- Gihar-tonua, erlaxazioa.
- Arnasketaren heziketa.
- Hautemateko (pertzepitibo) gaitasunaren garapena.
- Espazioaren eta denboraren arteko antolaketan aurreratzea.
- Mugimenduaren koordinazioa, bai orokorra bai atalkakoa (segmentarioa).



53. argazkia: Umearentzat, psikomotrizitatea adierazteko eta komunikatzeko baliabide bat

Psikomotrizista espezializatuek hiru alorretan lan egiten dute: Heziketa psikomotorra, eskola-adineko haurrentzat; Berreziketa psikomotorra, izaera fisikoko (psikomotorrak) arazoak dituztenentzat; Terapia psikomotorra, nortasun-arloko nahasteak dituzten pertsonentzat.

Eremu pertzepitibo-motorrari dagokionez (hautematea-higidura), eskola honek gauzatutako aurrerakuntzek, gerora, ekarpen eta berrikuntza ugari zabaldu dituzte heziketa fisikoaren arloan, eta horren antolaketa eta egiturak hobetu.

5.2. PSIKOMOTRIZITATEAREN KORRONTE TEORIKOAK

Psikomotrizitatean, teoria zabal eta komun horren barruan hainbat eskola edo joera sortu direnez, horien berri jaso nahi dugu. Dupré-k 1909an lehenengo aldiz psikomotrizitate terminoa erabili



zuenetik, etengabeko garapen-prozesua gertatu da. Gaur egun, besteak beste, eskola edo joera hauek bereiz daitezke (Tomàs, 2005:49-95):

- Henry Wallon: motrizitatea eta tonua, orientazio psikobiologikoa. Psikismo eta motrizitatearen arteko harremanak sendotzeko ikerketak egin zituen, gizakiaren lehenengo hizkuntza mugimendua dela esanez, berak ematen baitio umeari aukera bere beharrak asetzeko (lehenengo hilabeteetan), baina, gero ere, hizkuntza ulertu aurretik, motrizitateak oso paper garrantzitsua jokatzen du, jarrera eta jokabideen bidez ikasten baitu nola jarri harremanetan munduarekin. Wallonen ustez, mugimendua da, berez, inteligentziaren lehenengo adierazpena. Gihar-tonua oso inportantea da harremanetan eta emozioen adierazpenetan, eta mugimenduak honelakoak dira: pasiboak (orekak), aktiboak (lekualdaketak eta batze-mugimenduak), eta jarrerazko erreakzioak (keinuak, jarrerak eta mimika). Gorputz-eskemaren garapenean oinarritzen da, lehenengo disfunzio psikomotorak aipatuta eta ikertuta. Wallonen ustez, bestearekin dugun harremana harreman toniko-emozional bat da.
- Piaget-en ezagutzaren psikologia eta mugimenduaren garrantzia: Piageten ustez, jarduera motoreek ezagutzarako bidea egiten dute, gorputza ezinbesteko erreferentzia izanda. Gizakiak objektuekin eta haiek manipulatuta egituratzen du bere pentsamendua; beraz, Piagetek motrizitatearen garrantzia goraipatu egiten zuen, bera baita inteligentziaren eraikuntzan ezinbesteko baldintza. Umeen mugimenduak deskribatu zituen, haren ustez, umeak jarduera motorren bidez pentsamenduko egiturak osatzen dituelako. Haren ekarpen garrantzitsuena garapenaren aroen deskribapena da, esanez eskolan estrategia pedagogikoak erabili behar direla ikaskuntzak gertatzeko.
- Le Boulch eta psikozenetika: Heziketa Fisikoaren ikuspegi mekanizista gaitzesten du, eta pentsaera positibista eta kartesiarren aurka doa. Ikuspegi zientifikoaren barruan kokatzen da (psikozenetika): osotasunezko hezkuntza metodoa, mugimenduaz baliatzen dena. Portaera motorren oinarri neurologiko eta dinamikoak aztertu ditu. Honako hauek dira haren pedagogiaren ezaugarriak: aktiboa, gizakiaren ikuspegi bateratua, metodologia ez zuzendua, eskola ikasketetarako baliagarria izatea (oinarriak eskuratzen laguntzea). Heziketa Fisikoa ez da arlo bereizi eta isolatu gisa azaltzen. Hezkuntzaren osotasunezko ikuspegitik abiatuta, mugimendua, adierazpena eta adimenezko jarduera lotuak proposatzen ditu. Berak dionez, mugimenduaren heziketaren bidez, garapen psikomotorra suspertzen da, norbere buruaren eta gorputzaren kontzientzia hartuz, beste pertsona eta objektuekin erlazionatuz.



54. argazkia: 12-18 hilabeteko talde bat.

Bultzatzen dituen teknika eta jolasez baliatuta, idazketa, irakurketa eta kalkulua sustatzen ditu, hezurraren harremanen esparrua areagotuz, bere nortasuna sendotuz, betiere osotasunezko heziketaren ikuspegitik. Sei urte arte gorputz-eskema finkatzea pertsonalitatearen garapenerako ezinbestekotzat jotzen du, pertsonaren mugimendu naturalak aintzat hartuta. Espazio-denborazko pertzepzioarako, lateraltasunerako, eta gorputz-eskemarako ariketa batzuk deskribatzen ditu. Oinarrizko hezkuntza emateko metodoa da.

- Picq eta Vayer'en ikuspegi psikopedagogikoa: jarduera pedagogiko hori haurraren portaera normalizatzen saiatzen da, heziketa fisikoaz baliatuta. Leial eusten dio psikomotritatearen jatorrizko ikuspegiari (terapeutikoa). Honako helburu hauek ditu: eskolako ikasketaprozesua erraztea; portaera oro hobetzea; aurreragoko heziketa fisikoaren oinarriak finkatzea. Beraz, heziketarekin erabat lotuta dago, eta heziketa psikomotorra hitza erabiltzen dute. Mugimenduaren aldetik gainditu behar diren zailtasunak honako eremu hauetan daude: oinarrizko jarduera motorretan (orekan, koordinazio dinamiko orokorrean, eta segmentarioan), nerbio-sistemarekin lotuta doazen jokaera neuromotorrak (paratonia, sinzinesiak eta lateraltasuna) eta jokabide pertzeptibo-motorrak (espazio-pertzepzioa, denbora-pertzepzioa, eta espazio-denborako antolakuntza). Metodologikoki, ariketa egituratuak eta zurrinak programatzen dira errendimendu-helburu zehatz batzuk lortzeko



garapeneko garai bakoitzerako. Programa erabat egokia izateko, umearen behaketak zorrotza izan behar du, eta, horretarako, umearen jokabide dinamikoa ebaluatzeko test batzuk eraikitzen dituzte (aurretik bazeuden beste batzuk, Ozeretsky eta Guilmainenak; Brunet eta Lézinenak; Piaget eta Headenak...). Test horietan lortutako mailak irakaslearen erabakiak gidatuko ditu. Vayeren ustez (1971, 1972), garrantzi handia du gorputzaren mintzairak (*dialogo corporal* delakoa), gorputz-eskeman oinarritua eta gorputza objektuekin duen harremanetan zentratuta. Eta komunikatzeko beharra lan psikomotorren oinarri bihurtzen da. Bigarren fase horretan, psikomotrizitatearen lana honako arlo hauetan gauzatzen da: gorputzaren kontrola eta kontzientzia, gorputz-jarrera orekatua eta ekonomikoa, arnasketaren kontrola, oreka orokorra, koordinazio dinamikoa orokorra, esku-begiko koordinazioa, orientazioa espazio baten barruan, denbora-nozioak ulertzea, eskuaren trebakuntza, irakurmenarako eta kalkulurako prestakuntza mugimenduaren bidez.



55. argazkia: Motrizitatea esperimentatzeko aukera bat da.

- Bucher: haurren nortasuna aztertzen du, behaketa psikomotorrean oinarrituta. Haren ustez, gorputzaren bitartez, heziketa osagarria gauzatu beharra dago. Gorputz kontzientziarekin batera, eraginkortasun maila ere landuko da, gerora jarduera konplexuagoei aurre egin ahal izateko.
- Lapierre eta Aucouturier: Bizipeneko eta harremanetako



psikomotrizitatea. Bizipeneko psikomotrizitatea, gorputzaren bidez afektuzko eta emoziozko harremanak bizi direlako, sentimenduak erreakzio toniko-muskularrarekin lotuta dago; uzkurdua tonikoa munduan bizitzeko era bat da. Harremanetako psikomotrizitatea, gorputza adierazteko eta hautemateko umearen lehenengo tresna delako, gorputzaren bidez komunikatuko baita, gorputz eta adimen arloak bateratuta, bizitako jardueraren aldekoak dira. Baztertu egiten dituzte erabat egituratutako ariketa zurrinak, eta aukera irekiak eskaintzen dituzte. Osotasunezko bizipenaren bitartez, harremanetarako antolaketa eta adierazpenerako antolaketa lortzen dute. Oinarrizko hezkuntzan, psikomotrizitatea abiapuntu gisa hartu beharko litzatekeela uste dute. Beren metodoa araketan oinarrituta dago, umeak mundua deskubritu eta aztertu egiten du. Lapiarren ustez, askoz inportanteagoa da umeen arteko harremana, gorputzaren bizipena baino. Jolasaren gaia deskubritu behar da; jolasa librea da, jarduera espontaneo, eta jarduera motorra objektuen kokapenaren arabera sortzen da. Aucouturier-ek, berriz, Praktika Psikomotorraz hitz egiten du, eta komunikazioa, sormena eta deszentrazioa (bere emozio eta sentimenduekin distantzia hartzea) dira helburuak. Psikomotrizista lagun sinboliko bihurtzen da, eta umea entzuten eta legearen sinbolo bihurtzen da.



56. argazkia: mugimendu librea sentimenduak adierazteko aukera bat.

Hala, hiru espazioetan zatitzen da espazioa: sentsomotorra (mugimenduaren plazerarekin esperimendatzeko gunea, mugimendua ikuspegi emozionalatik ikusita); jolas sinbolikoaren espazioa (objektuek eta gorputzak berak dimentsio sinboliko bat

hartzen dute); errepresentazioaren espazioa (bizipena emozionaletik urruntzen laguntzeko). Saioa zatitu egiten da: hasierako errituala, espresibitate motorra (espazio sentso-motorra eta sinbolikoa), istorioa kontatzea (aurreko fasearekin lotutako marrazki bat edo horrekin lotuta zerbait kontatzea), errepresentaziorako momentua eta irteerako errituala.



57. argazkia: Umea gorputzaren bidez komunikatzen da

- Ajuriagerra eta Soubiran: medikuntzan oinarritutako ikuspegi neuropsikiatrikoa ere deitzen zaio. Birrezkuntza psikomotorren oinarriak ezarri ditu, erlaxazioaren, psikoanaliaren eta psikoterapiaren teknikez baliatuz. Gizakia osotasuntzat bat hartuta, zera esaten dute egitura motorrak, intelektiboak eta afektuzkoak hartu behar direla kontutan edozein interbentziotan gihar-tonua eta laxatzearen inguruko teknikak garatuz.

Beraz, eskola horiek guztiek beren metodologia eta lan-esparruak finkatu dituzte, eta praktikara joaterakoan eskola ezberdinak ikus daiteke.

5.3. PSIKOMOTRIZITATEAREN SAIO PRAKTIKOAREN EZAUGARRIAK.

Psikomotrizitate-gela umeen aurrean jartzen da, bere espazioekin, bere materialarekin, umeei ikus dezaten espazio hori bere adierazkortasun motorra erakusteko ziurtasunezko gune sinboliko gisa. (*Aucouturier, 2004:133*) Jarduera motorrak (biratzeak, errodatzeak,



ibiltzeak, ostikoz jotzeak, orekatzeak, erortzeak, saltatzeak, heltzeak, ukitzeak, oihukatzeak, barre egiteak, kulunkatzeak, makurtzeak, desegiteak, eraikitzeak, izkutatzeak, adierazteak...) plazera ematen dio umeari. Aucouturieren ustez, umea helduko bada, ezinbestekoa da alderdi motorra, afektiboa eta kognitiboa garatzea. Horretarako hiru txoko ezartzen ditu: plazer sentsomotorren txokoa, jolas sinbolikoaren txokoa eta urruntasunaren txokoa. Psikomotrizitate-gelan, umea den bezala azal daiteke, alai eta pozik. Interesgarria litzateke arropa gutxirekin egotea, horrela umeak bere gorputza ikusten duelako eta hobeto bereganatzen dituelako sentipenak. Interesgarria litzateke aretoan ispilu handi bat egotea, gorputza ondo ikusteko. Psikomotrizitate-gela praktika garatzeko behar bezala hornitua dagoen espazio zabal baten moduan sortzen da. Psikomotrizitate-gelan dauden txokoak honelakoak izango dira:

- Txoko sentsomotorra: hor egiten diren jarduerak honako hauek dira: kulunkaketak, jauziak, biratzea, itzulikatzea, labaintzea, jaurtitzea, eskailerak igotzea, korrika egitea, oihuka egitea, danborra edo tronpeta jotzea, goma-aparrarekin eraikuntzak egitea, sokekin jolastea, mozorrotzea, makillatzea, eraso egitea, jolastea, itxarotea, behatzea... Espazio horretan, mugimendua bat-bateko jarduera da, gorputzaren irudia eta identitatea sendotzeko. Mugimenduek umearen orokortasuna adierazten dute.



58. argazkia: Txoko sentsomotorearen espazioa.

- Jolas sinbolikoaren txokoa: umeak adierazpenak egiten dituenean, besteen onarpena lortzeko aukera du. Dimentsio sinbolikoa garatzen da, hainbat paper betetzen baititu. Umeak, berriro ere, bere plazerak eta bere gatatzak bizi ohi ditu, eta horiei erantzuten die, fikzioaren bidez errealitatea osatzen du eta, nolabait, oreka eta konpentsazioa bilatzen du. Txoko horretan menderatu ohi du bestela menderatu ohi ez duena.



59. argazkia: Jolas sinbolikoaren espazioa

- Urruntzeko txokoa edo komunikazioaren txokoa: Umeak keinuak, begiradak, ahotsa eta mimoa erabiltzen ditu. Urruntzea (*distanciación*) bilatzen du hor, sentsomotor eta sinbolikoaren espazioetatik alde egiten du, emozioetatik aldentzen da, eta beste espazio bat bilatzen du, eraikitzeko, marrazteko, moldeatzeko, margotzeko... Bere fantasiak martxan jarraitzen du gorputza mugitzen ez denean ere.





60. eta 61. argazkiak: Urruntze-txokoa edo -espazioa

Psikomotrizitatea besteekin komunikatzeko, aurkikuntza bereziak egiteko, manipulazioak egiteko eta errituei jarraitzeko aukera da. Haur-hezkuntzan lortu nahi diren ezagutza, trebetasun eta jarreretara iristeko, nahitaez igaro behar da gorputzaren jardueretatik; haurraren gorputza hezkuntza-prozesuaren ardatza dela esan dezakegu. Psikomotrizitatearen garapenak gorputza kontrolatzeko, psikikoki eboluzionatzeko, besteekin harremanak izateko eta kanpoko mundua bameratzeko bide gisa duen garrantzia kontuan hartuz gero, psikomotrizitatearen praktika erabat justifikaturik geratzen da.



62 eta 63. argazkiak: Psikomotrizitate gela, mugimenduarekin esperimentatzeko aukera bat.

Psikomotrizitateko materialak: umeak bere gorputza ikusten badu, sentipen hobeak izango ditu; horregatik, garrantzizkoa da gelan ispilu bat jartzea. Zenbait material egokiak dira espazioa esperimentatzeko: era askotako formak eta egiturak, grabitate-sentipen berriak izan. Horretarako, era honetako materiala da egokia:




tamaina eta azalera askotako pilotak, paperak, oihalak, mantak, koltxonetak, aroak, goma-aparreko makilak, goma-aparreko bloke handiak, sokak, plastikozko tutuak, kartoizko tutuak, puxikak, eta birziklatzeko materiala... Beste aldetik, igotzeko, ezkutatzeko eta labaintzeko materiala egongo da. Gora igotzeko nahiak, espazioa konkistatzekoak, ezkutatzekoak edo babestekoak egoera afektiboak bizitzeko balio dute, eta, horretarako, mahaiak, suediar eserlekuak, hormako barrak, igotzeko sokak, kartoizko eta plastikozko kutxa handiak, kutxa zulatuak, gurpilak... behar dira.



64. argazkia: Aja! ... aurkitu zaitut.

Psikomotrizitate txokoa eguneroko gela barruan: *Laguía eta Vidalen* ustez, 0-3 urteko ikasleekin interesgarria litzateke eguneroko gela barruan psikomotrizitateko txoko bat izatea; lehenengo urteetan mugimendua izan daiteke ingurunearekin harremanak sortzeko abiapuntua. Irakasleak umeak zer aukera dituen aztertuko du, eta, horren arabera, gorputzarekin esperimintatzeko, objektuak manipulatzeko eta, igo, jaitsi eta saltatzeko aukerak eskainiko dizkio umeari txoko batean. Bat-bateko jolasaren bitartez, aukera motorrak landuko dira, baina lan espezifiko bat ere egin behar da. Bazter batean egon daiteke alfonbra bat, eta horren gainean goma-aparreko bloke batzuk, edo kartoizko kutxa batzuk. Interesgarria litzateke alfonbraren gainean oinutsik egotea, garbitasunagatik, sentipen berriak izango dituelako eta zapatak jantzi eta eransteak autonomia emango diolako. Txoko horretan ez da talde osoa batera egongo, une bakoitzean bost edo sei ume baino ez dira egongo.



55. Irudia: Psikomotrizitate-saioaren atalak.

Psikomotrizitate saioaren erritualak: Psikomotrizitate-saioaren barruan, fase ordenatuak eta koherenteak bata besteari atzetik egin behar dira, eta, aurrekoaren hariari jarraitu, hurrengorako prestatu eta lotura ildo bati eutsi beharko zaio. Hala, honako lan-prozedura hau egingo genuke: jarduera motorra; bizi-aztertu-irudikatu. Irakasle batzuk, ordea, aukera askea eskaini egiten diete beren umeei, nahi dutenean txoko batetik bestera pasatzen uzten dieten neurrian. Metodologia horri esker, garapen psikomotorraz gainera, ikasleen nortasuna osotasunez lantzea lortuko da.

Haurren zaletasun eta nahiak kontuan hartuta irakasleak proposatzen ditu (ez agindu) jarduerak. Gustukoak dituztenez, ikasleek biziki parte hartzen dute. Honako atal hauek proposatzen dira saioaren sekuentziazioan:

- **Aurreko atala. Gelako txokoak prestatu.** Helburu eta edukien arabera, hainbat gune prestatzen ditugu: jauziak egiteko eta erortzeko, oreka, material bigun eta gogorreko zirkuituak... Txoko bakoitzean landuko diren gaitasunak haur bakoitzaren mailara egokituko dira. Irakaslearen esku gelditzen da zenbat txoko antolatu. Gutxienez, bi edo hiru gune behar dira.



65. argazkia: Irakaslea materiala prestatzen.

- **Harrerako atala.** Prestaketarekin hasi: oinetakoak eta berokia kendu, agurtu eta aurkeztu, arauak gogora ekarri, segurtasun-neurriak, besteenganako errespetua... Egun horretako txokoak azaldu, materiala komentatu, egin litezkeen jardueri buruzko iradokizunak egin... Haien iritzi eta galderei lekua utzi. Irakasle batzuek gomendatzen dute une horretan amasketa-ariketak, erritmokoak eta abestiak lantzea; beste batzuek, berriz, agur soila egiten dute.



66. argazkia: Harrera atala, abegia egiteko eta eroso jartzeko momentua.

- **Atal oldartsua.** Lanean hasteko, jardueraren bat proposatzen diegu (esponjak inguratuta lasterka egin, edo...), eta irakasleak hala esaten duenean eraisteko garaia iristen da ("derribo" ere esaten zaio): esponjen dorrea behera bota, pilotez betetako ontzira edo koltxoneta handi batera beren burua bota (hori guztia algara eta garrasi artean). Pertsona helduek ezarritako antolaketa apurtzen dute, tentsio emozionalak askatzen dituzte, gorputzeko giharren blokeoa gainditzen dute.





67., 68., 69. eta 70. argazkiak: atal oldartsua (espumazko blokeak botatzea)

- **Berezko jarduera motrizaren atala.** Hasieran, haurrak etengabe aritzen dira beren kabuz txoko batetik bestera dena eramaten. Aniztasun horri esker, era guztietako gaitasun eta mugitzeko beharrak lantzen (asetzen) dituzte. Gune horiei esker, mugimendua *bizi* dezakete, esperimentatu, gauzatu, erabakiak hartu, arazoak ebatzi, sortu, komunikatu... egiten baitute. Zailtasun maila guztietako eredu psikomotorrik lantzen dira. Irakaslearen eginkizunak jarduera hori aberastea izango du helburu. Horretarako, txokoak behin eta berriro antolatuko ditu, materiala gehituz, kenduz, lekuz eta egoeraz aldatuz... Haurrek, zenbait egoera gainditu ondoren, zailtasun maila handiagoko arazoei aurre egin beharko diete. Atal hori izango da luzeena (25-30'). Era askotako jarduerak egin daitezke: kulunkak, presioak, jauziak, garraioak, birak, trepak (igoerak), orekak, hustuketak, lekualdatzeak, esekitzeak, erorketak... Era askotako materialak konbinatuko ditugu: gogorak-bigunak, tinkoak-mugikorak, zorutik hurbil-urrun...



71. eta 72. argazkiak: Berezko jarduera motorearen atala.

- **Jolas sinbolikoa eta eraikitze atala.** Irudikatze jolasean, bizitza errealeko objektu, jarduera edo une bat irudikatzen du haurrak, fantasia eta errealitatea elkartuz. Horretarako, hainbat baliabide uzten dizkiegu eskura: zapiak, soka, uztaia, kuxina... Tresna neutro horiei bere sinbologia erantzen die haurrak. Jolas horiei esker barruan, gordetako barne-gatazkak kanpora ditzakete. Jarduera horrek helburu ugari ditu: erruduntasun-sentimendua gutxitu, errealitatea onartu, benetako egoeretara egokitu, egoera deserosoak onartu, debekatutako jarduerak antzeztu... betiere norberaren



onarpena sendotuz. Beren bizipenak ahoz adieraztera bultzatu behar ditugu. Atal horrek 10-15'-ko iraupena du.



73. eta 74. argazkiak: Jolas sinbolikorako txokoa.

- **Analisirako atala.** Aldi horretan, gure curriculumeko helburuetara bideratutako joko zuzenduak edo gidatuak landu ditzakegu: itxurak, koloreak, neurriak, espazioaren nozioak... Zehaztasun motrizeko jokoak ere sar daitezke (koordinaziozkoak). Azken bi atal horiek ez dira saio guztietan landuko.



75. eta 76. argazkiak: analisirako atalean jarduera gidatuak egin daitezke.

- **Irudikatze eta mintzatze fasea.** Ahoz, marratzuz, plastilinez, antzetzuz... saioan bizi izandakoa adierazi behar dute. Bizi izandako kontzeptuak barneratzeko, oroimena lantzeko, ordezkapena eta kontzeptualizazioa jorratzeko guztiz baliagarria gertatzen da.



77. eta 78. argazkiak: Mintzatze fasean zerbait marratu eta gero

kontatu zer egin dugun, edo zuzenean istorioa kontatzen hasi.

- **Jasotzeko atala:** Materiala jaso behar da; ohitura egokiak hartzen hasteko, gelan materialak jasotzen direnean bezala.

**79. eta 80. argazkiak: materiala jasotzen.**

- **Agurrerako atala.** Jarduerarekin deskonektatu behar dugu eta taldea elkartu. Ariketa albo batera utzi eta erlaxatzeko unea hasten da (erritmoarekin batera trena osatu, adibidez). Oinetakoak janzten dituzten bitartean, saioari buruz hitz egiten dugu eta elkar agurtzen dugu.

**80. eta 81. argazkiak: bueno, datorren egunean... gehiago.**

Metodologia: Haur Hezkuntzako curriculumean motrizitatea garatzen denean, psikomotrizitatea da metodologiarik ezagunena. Esan beharrik ere ez dago berez motrizitateari dagozkion eduki eta gai ugari lantzen direla etapa horretan; psikomotrizitatea da ezagunena, baina beste eduki batzuk ere badaude, jolasak, gorputz-adierazpena, ipuin motorrak, ikaskuntza-inguruneak, gaitasun motorren zirkuituak.... Etapa horretan, haurrak bere burua ezagutzea eta balioestea nahi dugu, bere gaitasun pertsonalak erabiltzeko ahalmenak jorratuz. Jasotako esperientzien arabera, bere nortasuna eratuz joango da.

Fisikoki bere burua ezagut dezan, gorputzaren eskema landuko dugu. Besteak beste, barneko atalak aztertuko ditugu (bihotza, birrikak...) eta aldaketa fisikoak (pisua, altuera...). Gorputza behatzeaz gain, sentimenak ere hartuko ditugu kontuan (nekea, hotza...). Autonomia lor dezan, gero eta zailtasun maila handiagoko jarduerak



eskainiko dizkiogu haurrari, betiere bere mailari egokituak. Era berean, atsedenaekin eta gorputzaren garbitasunaekin zerikusia duten ohiturak sustatuko ditugu, eta baita agindu errazak betetzea, tresnak saio amaieran jasotzea eta antzekoak ere. Adin horretako haurrak gaitasun motor berriak lortzeko grina du (itzulipurdiak, oin baten gainean ibili, jauziak egin...). Oreka, jarreraren egokitasuna eta lateralitasuna menderatuz doan heinean, bere gaitasun motorrak eta espazio-denboran orientatzeko ahalmena garatuko ditu.

Inguruko jendeak (irakasleak, kideak, gurasoek...) interesa eta balioespen positiboa erakusten badiogu, umeak konfiantza izango du bere buruan, eta, ondorioz, haurraren autoestimua hobetu egingo da. Gorputzaren eta keinuen bidez, komunikatzeko gaitasuna landuko dugu. Sormena bere sentimen eta barne gogoaz azaltzeko erabiliko du. Antzezpenen bidez, pertsona helduen munduaz duen irudia islatuko dute, joko sinbolikoaz baliatuz, eta hainbat pertsonaia imitatuz. Espazioko errepresentazioetan, haurra bere tresneriekin erlazionatuko dugu, eta, denborazkoetan, egunero egiten dituen jarduerekin.

Haurra osotasunean garatzeko asmoz, honako ezaugarri hauek izango ditu gure jarduerak:

- Haurraren alderdi positiboak aintzat hartuko ditugu, eta haren mugak onartuko ditugu. Haurra zer egiteko gai den hartuko dugu abiapuntu gisa (eta ez zer egiteko gai ez den). Bere gaitasunak lantzeko aukerak eskainiko dizkiogu.
- Haurraren nahi eta bat-batekotasunetik, sormenetik abiatuko gara, ikaskuntza esanguratsua lortu ahal izateko. Haurraren proposamenetan oinarrituta, horiek garatzen eta egokitzen lagunduko diegu, beren sormena eta autonomia sendotuz. Jarduerak gauzatu eta bizi egin beharko ditu.
- Haurraren erritmoa errespetatu, ez behartu ikaskuntzaren abiadura.
- Portaera psikomotorren bilakaera eta ibilbidea errespetatu: tonuaren ezaugarriak, emozionalak, ezagupenezkoak, espazio-denboraren orientazioa; urratsei jarraitu.
- Mugimendua eta afektibitatearen esperimentazioa erraztu: aukerak eman.
- Bizipenak ahoz adierazten lagundu: sentipenak barneratzen lagundu, emozioetatik bereiziz, pentsamendua egituratuz, irudikapenera iritsiz.
- Espazioa eta denbora mugatu txoko eta saioko atalei esker.
- Prozedurak moldatu: txokoak, materialak, proposamenak aldatu.
- Sormena bultzatu, erraztu: haurren proposamenak jaso, mezu irekiak aurkeztu.
- Saioetan: bizi (esperimentatu), aztertu eta irudikatzen aukerak hurrenez hurren ahalbidetu.

Irakaslearen joera pedagogikoa: Psikomotrizitatea lantzean,



erabakigarria da irakaslearen jarrera eta joera (bai ikasleekiko bai errealitatearekiko). Irakaslearen jarrerak honako ezaugarri hauek izan behar lituzke (*Zulaika, 2000* an jaso):

- **Harreman asimetrikoa:** haurraren jolasean sartzeko itxura egiten du, jolasa aurrera ateratzen laguntzeko, baina tartean sartu gabe; kanpotik behatuko dio.
- **Autokontzientzia:** (haurrak badu barne-emozioen berri). Emozioen autokontrola behar dugu, epaitu gabe, besteen sentimenduak hobeto ulertu ahal izateko. Ezaugarri horrek ondorengo beste zenbait ahalbidetzen ditu. Gaitasun horri esker, agresibitate arazoak, gorputz-kontaktuak, ustezko proiektzioak gainditu daitezke, baita arauak bideratu ere inposiziorik gabe.
- **Legearen eredu:** zenbait arau finkatu behar dira: minik ez eman, besteen lanak errespetatu... Giro permisiboa eta barkakorra behar dugu gelan. Haurraren berezkotasun eta bat-batekotasuna ahalbidetzeko, baldintza eta arauak gutxienekoak izango dira. Haiek pentsatzen dutena esateko, askatasuna izango dute, zigorrik jasotzeko beldurrik gabe. Emandako mezuak laburrak izango dira, eta saio-hasieran emango dira gehienak. Portaera desegokia duten haurrak maitasunez eta jarrera ulerkorraz hartuko ditugu; baina, aldi berean, mezu zuzen eta zehatzak emango dizkiegu.
- **Segurtasun fisiko eta afektiboa:** haurrari konfiantza adierazi: hitzen, jarreraren, kokalekuaren, proposamen egokien bitartez eta urratsen sekuentzia errespetatuz. Haurraren *ama-giroa* lortu behar dugu, baina, aldi berean, autoritate-egitura lortu behar da, ezetz esaten dakiena. Entzuten eta ulertzen dakienaren giro goxoa sortu behar dugu.
- **Enpatia:** bestearen lekuan jartzen jakin behar dugu, bestea nola sentitzen den jakin ahal izateko. Haurraren bat bateko jarduera ez dugu moztu behar, itxaroten jakin behar dugu. Haurraren mugimenduzko adierazpenari behatuz, hari buruzko informazioa jasotzeko gai izan behar dugu (gorputzaz mintzatzen da, bere emozioak adieraziz). Ahots-doinuak, keinuak, aurpegiko adierazpenen mezuak jaso behar ditugu. Haurrak diren bezala onartu behar ditugu, aniztasuna onartuz; beren portaera beren historia pertsonalaren emaitza eta ondorio da.
- **Prestasuna:** ezaugarri mental, afektibo eta gorputzezkoen bitartez (doinua, keinua, begirada) haurra ondo senti dadin lor dezakegu (bere burua errespetatzen eta onartzen dela ikusi behar du). Helduaren gorputza garrantzizko baliabidea izango da haurraren bilakaera-prozesuan. Besteak beste, honako atal hauek izango ditugu kontuan:
 - * Keinua: emozio-egoera aurpegiaz adierazten da
 - * Begirada: komunikaziorako leiho, arimaren ispilu



- * Ukimena: elkarren arteko harremanetan, etengabeko presentzia izango du.
- **Lan-giro irekia:** haurrek egindako aukerak onartuko dira, heziketarako eta beren garapenerako lagungarritzat diren neurrian. Haurrak bere kezka, zalantza, beldurrak kontuan hartzen direla sumatu behar du.

Godall-ek (1999) honela laburtzen ditu psikomotrizitatearen arduradunaren eginkizunak: espazioa eta harremanen egitura konplexua antolatu (esperientzia bultzatuz, ikasleen eskaerak eta familien ekarpenak ere kontuan hartuz), esperientzien garapenari lagunduz, abaguneak eta aukerak eskaintzen dituen sistema sortuz. Metodologia ez da gidatua izango, Dominguez Sevillanoren ustez (2002), ekintzaren filosofia da, eta intuizioa, emozioa, enpatia eta ezagutza erabili behar dira, haurri entzun egin behar diogu, bere lorpenak goretzi behar ditugu, eta irakasleak proposatu, orientatu, animatu egin dezake, baina umea izango da bere bizipenen jabe.

Gela barruan, mugimendu asko sortzen da, eta ordena era askotara ulertzen da; konfiantza eman behar zaio umeari, ikerketa egin ahal izateko. Gela bizirik egongo da, eta umeen interesak eta beharrak asetzeko aldatuz joango da. Behaketaren bidez, irakasleak ikusiko du zer espazio ez zaion haurri interesatzen, eta, horren arabera, espazio horiek aldatu eta berriro beharko ditu. Umearentzat, irakaslea arauaren irudia da, eta segurtasuna ematen dio. Kasu batzuetan, jolaskide sinboliko bat izango da, baina ez da sekulan umearen mamuetan sartu behar. Irakasleak ez du interpretatu behar ikusten ari dena; umeak, mugimendu eta jolas librearen bidez, bere beldurrak eta frustrazioak kanporatzen ditu. Esperientzia hori positiboa bada, beldurra gaindituko du. Irakasleak bere esku-hartze egin dezake baina ez zuzen-zuzenean, objektuez baliatuz baizik, eta haiek hasitako mugimenduekin ideiak edo kontsignak proposatuz (Lleixá, 2000).

Psikomotrizitate-gelan umeak adierazten duena onartzen da, nahi duena eta behar duena esaten du. Haren nortasuna aitortzen du, eta, horren ondorioz, heldutasuna lortzen du. Ez da metodo gidatua, baina gidatua ez izateak ez du esan nahi "egiten utzi" behar zaionik, gidatzeko beste modu bat baino ez da. Umeen nahiak kontuan hartuta, irakasleak bere nahiak bete behar ditu. Gidak umearen arabera ematen dira; horregatik, irakasleak umeak diona entzuteko prest egon behar du, disonibilitate kognitibo eta afektiboa eduki behar du. Proposatzen ditugun espazioek objektuak manipulatzeko eta espazioak aldatzeko aukera eman behar dute. Horregatik, espazioa eboluzionatuz joango da, eta, bide batez, egonkortasuna eman behar dio. Bestalde, irakaslea arauaren eta segurtasunaren adierazlea da; gutxienean arau batzuek egon behar dute, eta argiak izan behar dute; irakaslearen ardura izango dira horiek (Dominguez Sevillano, 2002).

Irakasleak umeari segurtasuna emango dioten baldintzak



eskainiko dizkio; psikomotrizistaren esku-hartzea hark entzuteko duen gaitasunaren araberakoa izango da, eta umearen erreakzio tonikoak ikusi beharko ditu. Irakasleak entzuten dakienean, umeak proposatzen duena ulertuko du eta erantzuna egokia izango da. Irakaslearen proposamenak umeak bidaltzen dituen agindu tonikoetatik etortzen dira. Irakaslearen estimulazioak honako hauek dira: ukimenezko estimulazioak (presioak eta labainketak), estimulazio labirintikoak (desorekak, kulunketak...).

Saioaren bukaeran, irakasleak gogoratuko du zer egin duten eta galderak egingo dizkie (zer animalia ren papera egin duzu hor zeundela?, edo zer egiten ari zinen hor?... Kontatu nahi duzu?... Ez badu kontatu nahi, umea bakean utzi behar da). Askotan, egindakoa kontatzen dutenean, hobeto sentitzen dira, oso naturalak dira; beraz, bat hasiz gero, beste guztiek ere esango dute zerbait. Adi betiko protagonistekin! Eman ume guztiei mintzatzeko aukera. Era horretako saioak ez dira askotan errepikatu behar (astean behin edo). Umeek denbora behar dute gertatutakoa asimilatzeke eta gainditzeko, batez ere, tartean beldurra dagoenean.

Psikomotrizitatea eta ikaskuntza: Saioan, umearen beharrei eta desioei erreparatuko diegu, eta, horretarako, honako parametro hauei behatuko diegu (Dominguez Sevillano, 2002):

- **Objektuekiko harremana**
 - o Nola aukeratzen dituzten objektuak
 - o Objektuaren ezaugarriak
 - o Objektua erabiltzeko moduak
 - o Objektuari ematen dion balioa eta zentzua
- **Espazioarekiko harremana**
 - o Espazioaren ikerketa
 - o Espazioarekiko orientazioa
 - o Espazioa egituratzea
 - o Bere espazioaren eta besteen espazioaren artean dauden harremanak
- **Denborarekiko harremana**
 - o Erritmoa
 - o Txandakatzea
 - o Sekuentzia motorrak
- **Besteekiko harremana**
 - o Beste umeekin: sedukzioa, kooperazioa, mendekotasuna, aldentzea...
 - o Nagusiarekin: gerturatzen diren ala ez, elkar bilatzen duten, ihes egiten dioten...
- **Norberarekiko harremana:**
 - o Mugimendua, tonizitatea jarrera, keinuak...
 - o Koordinazioa, mugimenduen kontrola eta zehaztasuna...

MATERIALAREN EZAUGARRIA	HAURRAREN JOKAERA	HELBURUA
-------------------------	-------------------	----------



Haurra zirikatzen du	Etengabe, era askotara mugitzen da	Garapen organiko eta funtzionala ahalbidetzen da.
Oztopoak sortzen ditu	Albotik saihesten ditu. Gaietik igo eta gainditzen ditu.	Batetik bestera mugitzeko gaitasuna egokitzen da. Koordinazioa eta oreka hobetzen da. Beldurra gainditzen da.
Manipula daiteke	Neurri, pisu, osagai... asko Jaurti, garraiatu, jo...	Koordinazio dinamikoa hobetu
Espazioa eraldatu	Aurrean, ezkerrean, eskuinean... jartzen da. Distantziaz jabetzen da. Ordenaketak sumatzen ditu.	Espazioaren antolaketa hobetzen da.
Hotsak sortzen ditu	Hainbat iraupen eta intentsitate maila jasotzen ditu. Egitura erritmikoak bereizten ditu.	Denboraren egituraketa hobetzen du.
Irudimena suspertzen du	Higidurak sortzen ditu. Jolasaren bidez irudikatzen du.	Adimenaren garapena eta garapen afektiboa bizkortzen du.

55. irudia: Materialaren ezaugarriak.

Materialaren garrantzia: Haurraren mugimendua eta psikomotrizitate-ahalmenak garatzeko baliagarriak izan daitezkeen baliabide eta materialen zerrenda bukaezina litzateke. Garbi izan behar dugu tresna altematibo eta ez konbentzionalen garrantzia: betetako botilak, gurpilak, zintak, erratza makilak, garbigailuen danborrak, zapiak, aulki zaharrak...

Materialak haurra zirikatu, mugiarazi eta eragin behar du, eta jardueran parte hartzera bultzatu behar du. Helburu hori bete ahal izateko, egokiak izan ohi dira itxura berritzaileak eta kolore deigarriak. Dena den, haurraren irudimenak gabezia horiek gaindi ditzake. Aspaldian nahiko baztertuta badugu ere, haurraren sormenak edozein tresna bihur dezake jolaserako iturri. Azter dezagun materialaren eginkizuna:

Psikomotrizitatea eta oinarrizko trebetasunak: Espazio sentsomotorrak aipatzen ditugunean, materialak eta espazioak honako helburu hauek lortzeko aukera eman beharko dute:

1. *Lekualdaketak:* espazioan mugitzea ahalbidetzen dute, eta espazioarekin eta objektuekin harremanetan sartzen da. Lasterketak edo ibilketak egitean, hedadura edo maiztasuna alda daiteke, eta, halaber, bermea (orpoa, punta...), bermatzeko oinarria, erritmoa eta noranzkoa; lau zangoka ere ibili liteke, hainbat bermerekin, hainbat gainazaletan, jarrera aldatuz, orientazioa aldatuz... propulstioak,



irristaketak, igoerak ...egin daitezke.

Erabil daitekeen materiala: takoak, pikak, sokak, bankuak, koltxonetak, pneumatikoak, hormako barrak, korapilodun sokak, suediar eserlekuak plano makurtuan jarrita...

2. *Jauziak*: bi hankekin bulkada egin ondoren bera dagoen tokia epe laburrerako uztea edo toki berean edo beste batean gelditzea. Jauziak egin daitezke: goitik behera, behetik gora, zabalean, altueran, hainbat berme erabiliz, bulkada eta erorketa eginez, hegalaldian mugimenduak eginez. Erabili daitezkeen materialak: aurreko guztia gehi tranpolinak, eta minitranpak...

3. *Birak*: arazo motor berri bat izaten dira, birak lantzeak umearen eredu motorren aberastasuna hobetuko du, eta sentipen berriak izango ditu... Espazioaren kontrola eta egituratzeko gaitasuna ere hobetuko da. Lan egin daiteke ardatzak aldatuz (bertikala, zeharkakoa...), norabidea aldatuz (eskuinera, ezkerrera, aurrea eta atzera, konbinazioak eginez), hainbat berme erabiliz, zeregin bat baino gehiago batera eginez. Erabil daitekeen materiala: uztaiak, bankuak, plano okerrak, barrak, koltxonetak...

4. *Orekak*: edozein jarduera egoera jakin batean egiteko, oreka behar da. Jarrera egonkor baten aurka sortzen diren indarrak gainditzeko gaitasuna da oreka. Lan egin daiteke: bermeak aldatuz, gorputz jarrera aldatuz, grabitategunearen altuera aldatuz, bermatzeko gainazala aldatuz, materialak eramanez, erreferentzia bisualak kenduz (begiak itxita).

5. *Gauzak jaurti eta hartzea*: mugikaria jaurtitzeko eta hartzeko aukerak aurkeztuko ditugu. Honela egin daiteke: gorputz-jarrera aldatuz, hainbat material mota erabiliz, hainbat distantzia erabiliz, zehaztasuna landuz. Honako material hau erabil daiteke: tamaina askotako pilotak, hainbat ehunduratakoak, uztaiak, pikak, puxikak, sokak, zintak, palak...

Jolas sinbolikoa: Jolasa eta errealitatea bereizten dira; jolasa norberaren ezagutzaren eta esperientzien isla da. Umea bereizketa hori egiteko gai denean, jolas sinbolikora ailegaten da. Jolas sinbolikoaren bidez, umeak bere munduan boterea eskuratzen du, baina, horretan, arauak bestelakoak dira. Errealitatea imitatuz, mundura egokitzeko prozesua gertatzen da. Umeak, urte eta erdi duenean, lo egingo balu bezala egiten du, edo orraztuko balitz bezala, edo sukaldean arituko balitz bezala. Objektu errealaren eta sinbolikoaren artean, badaude harremanak (simak), lapiko bat ez da sekulan ezpata bat izango, baina bai pala bat. Pertsonaia aukeratzean, garrantzi handia du afektibitateak, lehenengo imitazioak etxeko kideei buruzkoak izaten dira. Adin bakoitzean, era batera jolasten da, baina, sei urte arte jolas sinbolikoa da jolas forma nagusia. Joko sinbolikoan erabiltzen den materiala, alda daiteke edo dosifika daiteke, eta elementu berriak sor daitezke.



5.4. **IKASKUNTZA INGURUNEAK**

Ikaskuntzako inguruneek umearen jarduera librea proposatzen dute, eta, psikomotrizitatean bezala, irakasleak, materialaren bidez, esku hartzepedagogikoa egiten du, materiala helburu jakin batzuk betetzeko moduan kokatzen da. Ikaskuntza inguruneetan, haurrak era librean jarduteko antolatzen da espazioa, gaitasun motorrak landu ahal izateko. Horiek sortzeko baliabide didaktiko baliagarrienak espazioa eta materiala dira. Ingurune horiek zurrinak edo malguak izan daitezke. *Julia Blandezen* (1995-1999) planteamendua, ordea, definitu gabeko lanetan eta haurren jarduera librean oinarritzen da; horretan, askatasun-ingurune bat bilatzen da, haurra modurik naturalenean aritzeko, inor ezertara behartu gabe eta irakaslearen esku-hartzerik gabe.

Mota guztietako materialak erabil daitezke, eta era askotara konbina daitezke. Materiala era askotara aurkeztea komeni da haurra estimulatzeko, edonola ere, haurrarentzat erakargarriak izan beharko dute. Irakaslearen zeregina zera izango da: espazioa antolatzea eta horren erabilera azaltzea; ahal dela azalpen gutxi eman behar dira, haurrek beren kabuz asma dezaten materiala nola erabili. Bestalde, antolamendu-lanean materialek duten erabilera kontuan hartu beharko da, inguruneak erakargarriak izan behar du eta hainbat zailtasun maila jarri beharko dira haur bakoitzaren beharrak asetzeko. Irakasleak behaketa lana egingo du; umeek zer erreakzio dituzten eta materiala nola erabili den idatziko du; hala, hurrengo saioetarako baliagarriak izango den informazioa jasoko du.

Inguruneak beteko dituzten helburuak: Inguruneak osatzerakoan, gaitasun motor guztiak landuko dira, eta baita trebetasunak eta abileziak ere. *J. Blandezek* (1995) honako sailkapen hau egin zuen materiala antolatzeko:

- Lekualdaketak: materialak aukera emango du bira egiteko, arrastaka ibiltzeko, katamarka ibiltzeko, oinez ibiltzeko, korrika egiteko, labaintzeko...
- Jauziak: jauzi bertikalak, jauzi horizontalak egiteko eta oztopoen gainetik jauzi egiteko edo erortzeko...
- Orekak: materialak aukera emango du oreka dinamikoak eta estatikoak egiteko.
- Materialak emango du aukera lgotzeko, esekitzeko, eta kulunkatzeko
- Gauzak jaurti, jaso eta hartu; boteak, zehaztasunez edo zehaztasunik gabe jaurtitzea, pasatzea...
- Gorputz-adierazpena, pertzepzioa, gorputzaren kontrola, arnasketaren kontrola, norberaren gorputzaren kontrola eta pertzepzioa...
- Objektuak erabiltzeko aukera: ukitu, bultza, tenkatu, mugitu, arrastaka eraman, errodatu, eraiki...



Nola erabili materiala: Materialaren bidez esku-hartze didaktikoa egin nahi badugu, honako irizpide hauek errespetatu beharko ditugu:

- Ingurunea eraikitzekeo balibide material guztiak erabiliko dira, hau da, material konbentzionalak, botatzekoak, norberak eginikoak...
- Ikaskuntza-inguruneak oso erakargarriak izango dira, parte-hartzea bultzatuz eta motibazio handia sortuz.
- Espazio beraren barruan, zailtasun maila bat baino gehiago egongo da, norberaren maila kontuan hartuta egin dadin jarduera fisikoa.
- Programaren edukiak eta helburuak hantxe azalduko dira.
- Irakasleak behaketa egiteaz gain, han gertatzen den guztiaren berri jaso beharko du, hurrengo saioetan aldaketak egin ahal izateko.

Materiala nola sailkatu: Esku-hartze pedagogikoa ikaskuntzaz kanpokoa da, eta espazioa kudeatzea eta bertako materialak manipulatzeko du helburu, ikaskuntza gerta dadin. Ikaskuntzan esku hartu daiteke espazioa eta espazio horretan dauden materialak manipulatzen ondoren; hala, espazioa helburu didaktiko batzuen arabera antolatzen da. Espazioa manipulatzeko denean, irakasleak ez du agindua erabiltzen bere proposamena egiteko, baina material bakoitzak kokapen berezia du, helburu bat lortu nahi baitugu kokapen berezi horrekin. Hori dela eta, materialak adibide honetan adierazten den bezala sailka daitezke:

- Gorputz Hezkuntzako material espezifikokoak:

- Gimnasiokoak: hormako barrak, potroak, zaldiak, plintoak, sokak, suediar aulkia, lastairak, tranpolinak...
- Aisialdikoak: txirristak, kulunkak, zabuak, egurrezko eta burdinazko eraikuntzak (igotzeko eta esekitzeko)...
- Kiroletakoak: baloiak, erraketak, gomazko palak, borlak, pilota txikiak...
- Psikomotrizitatekoak:

Gorputza ezagutzekoak: gizakiaren egurrezko siluetak, ispiluak, oinen eta eskuen aztamak...

Sentsorialak: koloretako taulak, dominoak, soinu zilindroak, pisudun kuboak, botila termikoak...

Eraikitzekeoak: plastikozko edo egurrezko pieza txikiekin betetako poltsak edo danborrak.

Koordinazioa lantzekoak: karrotxoak, trizikloak, patinak, hanka-paloak, sokak, saltatzekoak, goma aparreko blokeak, katamarka aritzeko tunelak...

Atalen koordinazioa lantzekoak: pilotak, kanikak, uztaiak, pikak, boloak, frisbiak, erraketak, jausgailuak, tronpoak, pilatu daitezkeen piezak, lazoak...

Erritmoa garatzekoak: panderetak, krotaloak, marakak,



txintxirrinak, xilofonoak, hirukiak...

- Gorputz Hezkuntzako material ez espezifikoak:

- Naturalak: hostoak, adarrak, harriak, gaztainak...
- Birziklatuak:
 - Etxekoak: paperak, jogurt ontziak, oihalak, arropa, plastikozko botilak, plastikoak, kartoizko tutuak, mota guztietako ontziak, tapak...
 - Industrialak: Kartoizko kutxak, pneumatikoak, kartoizko hodi luzeak, zakuak, egurrezko takoak...
 - Norberak egiten dituenak: paperezko pilotak, zeloz egindako pilotak, plastikozko pilotak (forruak, zorroak...), artilezko pilotak, kometa-pilotak, marakak, kanpaiak (lata, soka eta bost durokoa edo arandela bat), hanka-paloak...
 - Komertzialak: goma elastikoak, paperezko biribilkiak, oihalak, plastikoak, sokak, inbutuak...

5.5. LABURBILDUZ:

Aucouturieren ereduari jarraituz, espazioa prestatuta dago eredu hori modu espezifikoan garatu ahal izateko; espazio horietan, hiru eremu edo hiru txoko antolatzen dira. Umeek erabakitzen dute zein txokotara joan eta zenbat denbora pasa behar duten han. Txoko bakar batean geldituko balira, beste batzuetan ere jardun dezaten saiatu behar da. Txokoen artean, jarraipena egon beharko luke, eta saiaturako gara txoko guztietatik pasarazten; hala ere, umea ez da, inolaz ere, behartu behar. Umeak gelara iristen direnean, irakaslearen aurrean esertzen dira, eta hark saioan zehar zer egingo duten azalduko die. Haurrek beren iritzia emateko aukera izango dute, eta iritzia eman ondoren, arauak gogoratuko dira (ezin da jo, ezin dugu min eman, ezta mina hartu ere...)

Saioan zarata handiegia sortuko balitz, STOP hitza esan daiteke jokoa geldiarazteko, eta denak gelditu behar dira. Edo umeak lasaitzeko, edo arreta zerbaitetan jartzeko, beste edozein formula erabil daiteke; modu horretara, zer egin duten ekarri beharko dute gogora. Taldekoen aurrean saioaren bukaeran zer egin duten kontatuko dute.

Julia Blandez-en ikaskuntza inguruneak erabiliko bagenitu, materiala eta gunea aldatu behar ditugu, lortu nahi dugun helburua landu ahal izateko. *Aucouturieren* pertsonaren osotasunari ematen dio garrantzia, *Blandezek*, berriz, alderdi motorrari ematen dio garrantzia, mugimenduaren plazera goraiatuz.



5.6. BIBLIOGRAFIA:

- AGUIRRE ZABALETA, J. (2005) *La aventura del movimiento. El desarrollo psicomotor de 0 a 6 años*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- AJURIAGUERRA, J. (1973) *Manual de psiquiatría infantil*. Bartzelona: Toray-Masson,
- ALZOLA, N.; OTAÑO, J. (1996) *El Porqué de la vida cotidiana*. Revista de Infancia, 35. zk., urtarrila-otsaila.
- ANTON, M. (1987) *La psicomotricidad en el parvulario*. Bartzelona: Editorial Laia. Cuadernos de pedagogía.
- AQUINO, F.; ZAPATA, O.A. (1982) *Psicopedagogía de la educación motriz en la juventud*. Mexiko: Editorial Trillas.
- ATKIN, L.C.; SUPERVIELLE, T.; SAWYER, R.; CANTON, P. (1987) *Paso a paso. Cómo evaluar el crecimiento y el desarrollo de los niños*. Mexiko: Ediciones UNICEF.
- AUCOUTURIER, B. (2000) *La práctica Psicomotriz*. Revista Cuadernos de psicomotricidad., 19. zk., ekaina. Bergarako UNEDeko Psicomotrizitate Eskola.
- AUCOUTURIER, B.; DARRAULT, I.; EMPINET, J.L. (1985) *La práctica psicomotriz. Reeducción y terapia*. Bartzelona: Editorial científico médica.
- AZNAR, P.; MORTE, J.L.; SERRANO, R.; TORRALBA, J. (1998) *La Educación Física en la Educación Infantil de 3 a 6 años*. Bartzelona: INDE.
- BALASKAS, A. y WALKER, P. (1985) *Gimnasia para los más pequeños: ejercicios de estimulación precoz desde el nacimiento a los cuatro años*. Bartzelona: Urano.
- BARTOLOME, R.; GORRIZ, N.; PASCUAL, C., GARCIA, M. (1993) *Educador infantil*. Madril: Interamericana- McGraw-Hill.
- BLANDEZ, J. (1995). *La organización de los espacios y los materiales en educación*. Madril: Alcoy.
- BRUNET, O. & LEZINE, I. (1989) *El desarrollo psicológico de la Primera Infancia*. Madril: Visor.
- BUENO, M.L.; MANCHON, J.I.; MORAL, P. (1990) *Educación Infantil por el movimiento Corporal. Identidad y autonomía. Segundo ciclo 3-6 años*. Madril: Gymnos.
- CANAL FARRIOLS, D. (1993) *La Educación Física del nacimiento a los tres años*. A.M. Rosa Sensant y MEC. Bartzelona.
- CLAPAREDE, E. (1927): *Psicología del niño y pedagogía experimental*. Madril: Beltrán,
- CONTRERAS JORDAN, O. (1998) *Didáctica de la E.F. Un enfoque constructivista*. Bartzelona: INDE.
- DELVAL, J. (1989) *El conocimiento y las etapas del desarrollo*. Madril: Ediciones del Ministerio de educación y Ciencia. Colección el niño y el conocimiento, serie básica.
- DEVIS, J. y PEIRÓ, C. (1992): *Nuevas perspectivas curriculares en la Educación Física: la salud y los juegos modificados*. Bartzelona: INDE.
- DIAZ LUCEA, J. (1994). *El curriculum de la Educación Física en la Reforma*. Bartzelona: INDE.
- DOMINGUEZ SEVILLANO, M. A. (1992) *Una didáctica corporal desde el respeto a la maduración*. Revista Comunidad Escolar, 2. zk., iraila.
- DOMINGUEZ SEVILLANO, M. A. (2000) *La Observación. "¡Huy! ¡Si Pablo habla!*. Revista Cuadernos de psicomotricidad., 19. zk., ekaina. Escuela de Psicomotricidad de la UNED de Bergara. Bergara (Gipuzkoa)
- DOMINGUEZ SEVILLANO, M.A. (2002) *Cuando cada misterio que pasa es un misterio para resolver*. Material policopiado inédito. Bilbao: Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea.
- DURIVAGE, J. (2005) *Educación y psicomotricidad*. Sevilla: Trillas.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzako Curriculum Diseinua. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzua. Bilbo, 1982.
- FROSTING & MASLOW. (1984) *Educación del movimiento*. Buenos Aires: Editorial panamericana.
- GARAIGORDOBIL, M. (1995). *Psicología para el desarrollo de la cooperación y de la creatividad*. Bilbao: DDB. Biblioteca de Psicología.
- GASSIER, J. (1983) *Manual de Desarrollo Psicomotor*. Bartzelona: Toray-Masson.
- GOLDSCHMIED, E. ; JACKSON, S. (1999) *La educación Infantil de 0 a 3 años*. Madril: Morata.



- HAGSTROM, J.; MORRILL, J. (1984) *Juegos con Niños, un manual para jugar con los niños*. Bartzelona: CEAC. Colección Educación y Enseñanza. Serie preescolar.
- JIMENEZ ORTEGA, J.; JIMENEZ DE LA CALLE, I. (1995) *Psicomotricidad. Teoría y programación*. Madril: Editorial Escuela Española S.A.
- JUBETE, M.; MAJEN, T. (1994) *Lo cotidiano*. Rev. Infancia 23. zk., urtarrila-otsaila.
- JUSTO DE LA ROSA, M. (1991) *Orientaciones educativas para niños de 0 a 3 años*. Madril: Bruño. Colección Nueva Escuela.
- KAMII, C.; de VRIES, R. (1988) *Juegos Colectivos en la primera Enseñanza*. Madril: Aprendizaje Visor.
- KOOPERNIK (1964): *Desarrollo psicomotor de la infancia*. Bartzelona: Miracle,
- LAPIERRE, A. y AUCOUTURIER, B. (1977): *Simbología del movimiento*. Madril: Científico Médica,
- LE BOULCH, J. (1972). *La educación por el movimiento en la edad escolar*. Buenos Aires: Paidós.
- LE BOULCH, J. (1978). *Hacia una ciencia del movimiento humano*. Paidós. Buenos Aires.
- LE BOULCH, J. (1983) *El Desarrollo Psicomotor desde el nacimiento a los 6 años*. Doñate. Madril.
- LE BOULCH, J. (1987): *La educación psicomotriz en la escuela primaria*. Bartzelona: Paidós.
- LEVI, J. (1985) *Gimnasia para tu bebé*. Despertar a la vida. Bartzelona: Daimon.
- LEWIS P. LIPSITT & HAYNE W. REESE. (1981) *Desarrollo infantil*. Mexiko: Editorial Trillas.
- LINAZA, J. (1981): "Bruner-Piaget". Madril: *En Revista Infancia Aprendizaje*.
- LINAZA, J.L. (1989) *El juego infantil*. Madril: Ediciones del Ministerio de educación y Ciencia. Colección el niño y el conocimiento, serie básica.
- LLEIXA, T. (1989) *La Educación Física en Preescolar (4-8 años)* Paidotribo. Bartzelona.
- MAURIRAS BOUSQUET, M. (1986): *Lo que incita a jugar y lo que incita a aprender. Perspectivas*, XVI, 4, 497-507
- MOLINA, D. (1972) *Psicomotricidad I. La coordinación visomotora y dinámica manual del niño infradotado*. Buenos Aires: Editorial Losada S.A.
- NAVARRO ADELANTADO, V. (1993) "El juego Infantil" en *Fundamentos de Educación Física para Enseñanza Primaria*. II. Lib. INDE. Bartzelona. XVIII. kap.
- ORLICK, T. (1990): *Libres para cooperar, libres para crear*, Bartzelona: Paidotribo,
- ORTEGA, R. (1986): "Juego y pensamiento en los niños". *En Cuadernos de pedagogía*, 133. zk.
- PASTOR PRADILLO, J.L. (1994) *Psicomotricidad escolar*. Servicio de publicaciones de la Universidad de Alcalá de Henares.
- PIAGET, J. (1959): *La formación del símbolo en el niño*. México: FCE,
- PIAGET, J. (1971): *El criterio moral en el niño*. Bartzelona: Fontanella.
- PIAGET, J. (1972): *El nacimiento de la inteligencia en el niño*. Madril: Aguilar
- PIAGET, J. (1973): *La representación del mundo en el niño*. Madril: Morata,
- PIAGET, J.(1976): *Autobiografía*. Bartzelona: Cincel
- Proyecto CHISPA. (1991) *Educación Infantil 0-3 años*. Libro de recursos.Madril: Alhambra Longman.
- QUINTANA CABANAS (1981): *Precisiones sobre el concepto de creatividad, creatividad y educación*. Madril. M.E.C
- ROGERS, C. (1978): *Libertad y creatividad en la educación*. Buenos Aires: Paidós..
- RUIZ PEREZ, L.M. (1987) *Desarrollo Motor y Actividades Físicas*. Madril: Gymnos.
- RUIZ PEREZ, L.M. (1996). *Aprendizaje motor e investigación cualitativa*. Sobre la necesidad de contemplar el punto de vista de la persona que aprende. Educación Física y práctica docente. Madril (11-22. or.) Consejo Superior de Deportes.
- SANUY, J. (1980): *El niño ante el espacio (de la rayuela al laberinto)*. Madril: Pablo del Río.
- TOMÀS, J. (2005) *Psicomotricidad y Reeduación*. Barcelona: Laertes.
- UNESCO (1980): *El niño y el juego: Planteamientos teóricos y aplicaciones pedagógicas*. Paris: UNESCO.



- VACA ESCRIBANO, M.(1986): *Tratamiento Pedagógico de lo Corporal en los comienzos de la E.G.B.* Malaga: UNISPORT
- VIDAL, J. (1988): *Juego y educación.* Madril: Akal.
- VYGOTSKI, L.S. (1982): El juego y su función en el desarrollo psíquico del niño. Cuadernos de Pedagogía, 85. zk., 39-48. or.
- WALLON, H. (1980): *La evolución psicológica del niño.* Psique, Buenos Aires. (Jatorrizko lana 1941ean argitaratua).
- WOLFGANG. Ch. (1984): *Cómo ayudar a los preescolares pasivos y agresivos mediante el juego.* Bartzelona: Paidós.
- ZABALZA, M.A. (1987): *Áreas, medios y evaluación en la educación infantil.* Madril: Narcea.
- ZAPOROZHETS, A.V. (1948): "El cambio de los impulsos del niño de la Edad preescolar según sean las condiciones y los motivos de su actividad. En Rev. de la Academia de C.C. Pedagógicas de la RSFSR. 14. faszikulua.
- ZENBAITEN ARTEAN (1987): *¿ Juzgar o Enseñar? "* En Cuadernos de pedagogía, 150. zk.
- ZIARSOLO, A. (1994) *Materiales Curriculares para el período de 3-8 años.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.